

**Audioaren erreferentzia:** JJ-78 Triku holokaustoa

**Mailak:** B2-C1

**Funtzioak:** iritzia eman, hipotesiak egin, aholkuak eman

**Adierazpide linguistikoak:** lexikoa (*triku, holokausto, errepide, akabatu, zapaldu, auto...*), *-(r)i buruz, -ko/-go nuke, ahalik eta -en, ba...*, *saiatu zaitetz, beharko duzu, dozenaka, esatea ere, izatekotan, gelditu izana...*

**Azken ekintza:** errepideko oztopoak saihesteko aholkuak eman

## EGITEKOAK

### 1-Ikasgelara etorri aurretik egitekoa.

#### 1.1 Bi hizpide



Gaiari hurbiltzeko eta ikasgelan audio-pasartea entzun aurretik partekatzeko jarduera:

Elkarrizketaren bi une irakurri eta zertaz ari diren asmatzen saiatu behar dute hipotesiak eta arrazoiak azalduz. Laguntzeko, adibidea dute bertan.

**Egoeraren kokapena egin eta idatzi zertaz ari diren Jon eta Jone zure ustez**



#### Adibideari erreparatu:

*Nire ustez, lehenengoan, Jon eta Jone Nikoren igeriketa klaseei buruz ari dira. Antza denez, zaila da erabakitzea haurrak zein ikastarotan hartu behar duen parte. Jone oso haserre antzematen da eta arrazoa zera izan liteke: Jonek brometan hartu duela gaia eta horrek ez dio erabakia hartzen laguntzen.*

1



*JONE: Nikorekin bizi naiz. Zuk zer uste duzu, halako erabaki bat Oujaren bitartez hartu daitekeela?*

*(...)*

*JON: bueno ez dakit erraza den ala ez, baina ez da lehendabiziko kasua, milioika bizi dira horrela. Zergatik izutzen zara beti gauza hauekin?*

*(...)*

2



*JON: Ostia!*

*JONE: Zer gertatzen da, Jon?*

*JON: Ez duzu ikusi?*

*JONE: Baina, nora zoaz?*

*JON: Memento bat besterik ez da...*

*JONE: Jakin daiteke zer zen hori?*

*JON: Triku bat*

*JONE: eta zer egin duzu?*

*JON: Ba ikusi duzu, hartu eta ahalik eta urrutien eraman*

*(...)*

## 2- Ikasgelan amaitu ondoren egitekoak.

Elkarrizketan oinarritutako esaldiak berridatzi, parentesi arteko moldeak erabiliz.

# 1- Entzun aurretik

## 1.2 Hipotesiak trukatu




  Ikaskidearekin partekatuko dituzte  ariketan egin dituzten hipotesiak eta antzekoak edo oso desberdinak diren komentatuko dute Ondoren, elkarrizketa entzungo dute egiaztatzeko.

### Zuzenketa:

1. Elkarrekin bizitzeari buruz. Joneri kontu serioa iruditu zaio eta Jonek gaia planteatzeko modua ez zaio gustatu.
2. Autoan doazela Jonek errepidean trikua ikusi du eta autoa geratu du trikua errepidetik baztertzeko.

# 2- Entzun bitartean

## 2.1 Joneren iritziak

   Baieztapenak irakurri eta baloratu dezatela zein izan daitezke Joneren iritziak. Ikaskidearekin komentatu dezatela ea gauza bera pentsatzen duen berak ere.

### Zuzenketa:

Autoak harrapatuta hiltzen diren trikuak asko eta asko direla esateko "holokausto" hitza erabiltzea gehiegizkoa iruditzen zaio




Niko dagoenez, bien arteko harremanean, poliki joan behar dutela iruditzen zaio Joneri

**Joneri iruditzen zaio maitasun kontuan inor minduta ez ateratzeko ezin dela egi osoa esan.**

Jonek pentsatzen du Jonen galdera azkarregi iritsi zaiola, berak ez baitu bere burua prest ikusten proposamenari baietz esateko.

Errepidean kontu handiarekin ibili behar delakoan dago, eta, autoa animalia batengatik bat-batean geratzea oso arriskutsua iruditzen zaio.

## 2.2 Jon nola ageri da?

   Aurreko ariketan Joneren jarrera aztertu ondoren, Jonen izaerari buruz arituko da ikaslea. Idatzi dezala nola ageri den elkarrizketaren hainbat unetan. Adibide gisa, aurreko ariketan Joneri buruz esandakoak erabili ditzaketela aipatu.

Tartean egia ez den ezaugarriren bat idatzi behar dute. Ikaskidearekin idatziak trukatu eta ikaskideak idatzitako gezurra aurkitu behar dute .

### Zuzenketa:

**Trikua errepidetik kenduta, animaliekiko begirunea agertzen du**




**Jonerekin maiteminduta dagoela aitortzeko lotsarik ez duena**

Harremanak aurrera egin dezan apustua egiteko prest dago eta ausardia erakusten du Joneri elkarrekin bizitzeko proposamena eginda

Jonek barregarri utzi nahi duen arren, bera egindakoaz ez da damutzen

Animaliak pertsona askoren jokabideen gainetik jartzen duela erakutsi du

## 2.3 Trikua

   Elkarrizketan, Jonek beste hitz bat erabili du "triku"aren ordez. Erantzun galderari







**Nola deitzen diote trikuari Eibarren?**

**Zuzenketa:** Kirikino

## 3- Entzun ondoren

### 3.1 Oztopoak sahiestu

    Joneri maniobra arriskutsua iruditu zaio Jonek autoarekin egindakoa. Horrekin lotutako bi eginkizun dituzte: iritzia eman eta aholkuak osatu



**1. Iritzia eman:** Erreparatu irudiari eta eman elkarri iritzia, galderak oinari hartuta:

- Autoa geratuko zenuke? Zergatik?
- Zein dira egoeraren arriskuak?
- Zein aholku emango zenioke gidariari?

### Zer egingo zenuke? Zergatik?

#### Adibideak:

- Oso animalia zalea naizenez, bolante-kolpea joko nuke oreina ez harrapatzeko
- Ba nik, neu onik ateratzeari emango nioke garrantzia, hortaz, aurrera jarraituko nuke oreina hiltzen den edo ez kontuan hartu gabe.

(...)

- Nik ez nuke inolaz ere autoa geratuko, oso arriskutsua izan baitateke errepide erdian bat-batean autoa geratzea
- Atzetik beste autorik ez datorrela ikusi ondoren, balazta barruraino zapalduko nuke autoa guztiz geratu arte eta animalia ez harrapatzeko.
- Zalantzarik gabe, autoa guztiz geratuko nuke, bestela kolpea izugarria izan baitaiteke

**2. Errepideko oztopoak saihesteko aholkuak eman:** Ikasleek binaka osatu behar dute egoera bakoitzean zer egin, aholkuak emanaz. Hauxe duzu zuzenketarako testua:

[Consumer aldizkaria](#)

**Zuzenketa:**


- Balazta ondo zapaldu, ahal bada gurpilak blokeatu gabe. Autoak ABS sistema badu, orduan balazta barruraino zapaldu. ABSrik ez badauka, berriz, oztopoa gertu daukazunean oina balaztatik pixka bat altxa eta maniobratu oztopoa saihesteko. Gorputzaren pisua oinen gainera eraman eta bolantea alde batera jiratu, gehienez buelta erdia. Maniobra egiten ari zaren denbora guztian, oztopoari begiratu beharrea, pentsatu zein norabide hartuko duzun. Behin oztopoa saihestuta, bolantea hasierako posizioa eraman mugimendu labur eta azkar batez, autoaren egonkortasuna berreskuratzeko.
- Errepidean topatzen duzun oztopoa animalia bat bada, klaxona jo **eta aldi berean abiadura moteldu.**
- Gaua bada, **argi luzeak kendu eta motzak jarri, argi luzeekin animalia itsutu egiten delako eta mugitu ezinik gelditzen delako.**
- Animalia txikia bada eta abiadura handiarekin bazoaz, **animalia ez harrapatzeko bat-batean frenatu beharko duzu edo norabide aldaketa arriskutsuak egin; beraz, bolanteri gogor heldu eta zuzen jarraitu.**
- Animalia handia bada -basurde bat edo behi bat-, **saiatu zaitez animalia saihesten edo, gutxienez, aurretik ez kolpatzen, aurreko kristaletik sar ez dadin. Errepidearen eskuinetik baino ezin baduzu animalia saihestu, eta errepide horretan posible bada, freno gutxiago zapaldu.**


**3.2 Maniobra arriskutsuak**



Talde txikitan, irudiak aztertu eta baloratu nolako arriskua izan dezakeen bakoitzak.

Ondoren, eman aholkua egoera bakoitzean istripu arriskurik ez egoteko, aurreko jarduerako aholkuak eredu hartuta.





## BAKARKA EGITEKO ARIKETA

Kirikino esaten zaie

Trikuekin izan duten pasadizoaren harira, hainbat esaldi berridatziko dituzu. Idatzi beste era batera goiko esaldian azpimarratuta dauden molde eta egiturak, parentesi arteko moldeak erabiliz. Aldatu esaldiak forma berrira egokitzeko.

1. Jonek trikua hartu eta errepidetik ahal izan duen guztia urrutiratu du (ahalik eta) **Jonek trikua hartu eta errepidetik ahalik eta urrutien eraman du**
2. Nik ez dut ba ikusi! (ere egin) **Nik ez dut ikusi ere egin!**
3. Errepidean trikuak hiltzea holokaustoa dela esatea gehiegitxo iruditzen zait (esatea ere) **Errepidean trikuak hiltzea holokaustoa esatea ere...**
4. Errepidean autoek zapaldutako triku mordoxka ikusten dut nik urtero (dozenaka) **Errepidean autoek zapaldutako dozenaka triku ikusten dut nik urtero**
5. Nik bakarrik hainbeste ikusten baditut, imajinatu zenbat diren akabatzen ditugunak (pentsa) **Nik bakarrik hainbeste ikusten baditut, pentsa zenbat diren akabatzen ditugunak**
6. Eibar aldean ez dira trikuak, kirikinoak baizik (esaten zaie) **Eibar aldean trikuei kirikino esaten zaie**
7. Horrela jarraituz gero, izena bakarrik geratuko zaigu (besterik) **Horrela jarraituz gero, izena besterik ez zaigu geratuko**
8. Ikusitakoa ikusita, animalia bat izan beharko banu, kirikinoa izan nahiko nuke (izatekotan) **Ikusitakoa ikusita, animalia bat izatekotan, kirikinoa izan nahiko nuke**
9. Nahi duzuna esan, baina ez daukat inolako damurik autoa gelditu dudalako (gelditu izana) **Nahi duzuna esan, baina ez daukat autoa gelditu izanaren inolako damurik**

## TRANSKRIPZIOA

JONE Zer pasa dira 4 hilabete elkar topo egin genuenetik? Eta elkarrekin bizitzeko galdetzen didazu?

JON Ba egia esan pentsatzen nuelako igual zuk ere nahi zenuela, baina garbi dago ezetz.

JONE Nikorekin bizi naiz. Zuk zer uste duzu, halako erabaki bat Oujaren bitartez hartu daitekeela?

JON Eta, zein da arazoa? Ongi moldatzen naiz Nikorekin

JONE Ia eta zer? Hain erraza dela uste duzu?

JON Bueno, ez dakit erraza den edo ez, baina ez da lehendabiziko kasua, milioika bizi dira horrela. Zergatik izutzen zara beti gauza hauekin?

JONE Jon elkarrekin berriro bizitzen jartzen bagara horrek ez du atzera bueltarik eta bai horrek izutzen nau

JON Bueno Jone, ahaztu atzokoa, bale? Onartzen dut txorrada bat izan zela, are gehiago Ouija txorrada horrekin egin izana, aizu gero geratzeko gogorik?

JONE Bale

JON Zinemara joan gintezke.

JONE Ez dut hainbeste denborarik, beste pote bat hartu eta zinema astebururako utziko dugu?

JON Konforme. Zer nahi duzu beste kafi bat?

JONE Zuritua hobe, apur bat piripi nago dagoeneko

JON Lasai eramango zaitut etxera gero, kotxea (autoa) gertu aparkatu dut.

JONE Jon, atzokoaz, batetik ilusioa egiten didala ere esan nahi nizun.

JON Atzoko zer?

JONE Elkarrekin bizitzearen kontua, gustatzen zait galdetzea, baina uste dut oraindik ez dela mementoa, bale? Moskeorik gabe.

JON Ez naiz une bakar batean ere moskeatu.

JON Azkenean ilundu du.

JONE Ia... "espuela" eta "espuela"...

JON Zinemara joateko denbora ematen zigun.

JONE Eta eskerrak amak ez zuela arazorik Nikorekin geratzeko.

JON Ostia!

JONE Zer gertatzen da Jon?

JON Ez duzu ikusi

JONE Baina Nora zoaz?

JON Memento bat besterik ez da...

JONE Baina nora zoaz?

JONE Baina jakin daiteke zer zen hori?

JON Triku bat.

JONE Eta zer egin duzu?

JON Ba ikusi duzu, hartu eta errepidetik ahalik eta urrutien eraman

JONE Nik ez dut ikusi ere egin.

JON Negua eta hotzaren amaieraren gauzarik okerreña da hau, triku holokaustoa hasten dela berriro ere.

JONE Hala! Holokaustoa esatea ere.

JON Errepidean kotxeak (autoak) zapal dutako dozenaka triku ikusten dut nik urtero. Nik bakarrik horiek guztiak ikusten baditut pentsa zenbat diren akabatzen ditugunak.

JONE Bizkaitarrez kirikiño esaten zaie, gustatzen zait kirikiño izena.

JON Ba horrela jarraituz gero izena besterik ez zaigu geratuko.

JONE Bueno baina nik beti entzun dut kotxean (autoan) ez dela maniobra zatarrak egin behar animalia bat gurutzatzen bada, okerragoa izan daitekeela.

JON Animaliaientzat ez.

JONE Bueno Jon ez hasi konparatzen, holokaustoa lehen eta orain pertsonak eta animaliak maila berean jartzen.

JON Egia esatea nahi baduzu nahiago animaliak.

JONE Behin irakurri nuen hori psikopata eta soziopaten artean ohikoa zela pertsonak maitatzeko arazoak dituztenek animaliak maitatzen dituztela.

JON Ba horrek ez dakit non uzten zaituen zu nire animalitxo.

JONE Ikusitakoa ikusita, animalia bat izatekotan kirikiñoa izan nahiko nuke, seguru nago auto-stop egiten izango banintz ez zinela geldituko.

JON Nahi duzuna esan, baina ez daukat kotxea (autoa) gelditu izanaren inolako damurik.

JONE Eta atzetik norbait bazetorren?

JON Baina ez zetorren.

JONE Bueno besterik gabe esan dizut... Aiii Kirikiño salbatzailea... eman pikito